PRENTSA OHARRA

Vitoria-Gasteiz, 2014ko apirilaren 11

ERAIKUNTZAREN SEKTOREAK ERAIKINAK BIRGAITZEAK GORA EGIN IZANARI ESKER DIRAU BIZIRIK

- *Ematen diren hamar udal-baimenetik zortzi eraikinak leheneratzeko dira*

Euskadin beste sektore batzuen kasuan bezala, eraikuntzaren portaera ere aldarazi du krisiak, eta, 2007 aurretik ez bezala, eraikuntza berriak egitekoak baino gehiago izan dira lehendik eraikita zeuden etxeak birgaitzeko jarduerak.

2013ko azken hiruhilekoari dagokion «Etxebizitzari eta eraikuntzari buruzko azterketa estatistikoak» berretsi egin du eraikuntza-lanen tipologian sumatua zen joera-aldaketa, krisia hasi zenetik birgaitzeak gero eta pisu handiagoa hartu baitu.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailak egindako azterketak dioenez, iazko azken hiruhilekoan obra larrietarako (etxe berriak egiteko zein zaharrak birgaitzeko edo eraisteko) 592 baimen eman zituzten EAEko udalek, eta haietan % 82,4 eraikinak berrantolatzeko izan ziren. Alegia, hamar udal-baimenetatik zortzi izan ziren horretarako.

2013. urte osoan, udalek emandako obra larriko 2.145 baimenak aurreko urtean baino % 9,9 gutxiago izan ziren, eta 2007an emandakoak baino 1.329 gutxiago (% 38,3 gutxiago, hain zuzen). Bereziki deigarria izan da aldaketa Araban eta Gipuzkoan, historiako maila txikienetan egon baitziren: % 14,4 eta % 12,1, hurrenez, hurren.

Krisialdian etxe berriak egiteko baimenen kopurua baizik ez bada aintzat hartzen, orduan are handiagoa da beherakada: % 74,9, hain zuzen. Argi asko erakusten du zifra horrek etxe berriak egiteko jarduerak zer-nolako joera beherakorra duen. Adreiluaren krisia lehertu baino urtebete lehenago, 2006an, hasi zen hautematen joera.

Etxe berriak egiteko baimen emanen kopuruak % 21,5 egin zuen behera 2012eta 2013 bitartean, 2011-2012 aldian hasitako doikuntza (% 32,3ko beherakada) luzatuta. Gipuzkoari dagokio sail honetako beherakada handiena –% 30koa, hain zuzen–, eta hurrena Araba eta Bizkaiari (% 18 ingurukoa).

EAEko hiru lurraldeetan historiako zifra txikienak jaso dira 2013. urtean: 110 baimen Araban, 91 Gipuzkoan eta 150 Bizkaian.

Obra larriko baimen-kopurua urteko eta tipologiaren arabera

Euskal Autonomia Erkidegoa	Guztira		Etxe berriak		Birgaitzea		Eraistea	
Urtea	Kopurua	Urtetik urtera izandako aldaketa	Kopurua	Urtetik urtera izandako aldaketa	Kopurua	Urtetik urtera izandako aldaketa	Kopurua	Urtetik urtera izandako aldaketa
1998	3.374		1.795		1.522		57	
1999	3.361	-0,4	1.798	0,2	1.499	-1,5	64	12,3
2000	3.424	1,9	1.756	-2,3	1.594	6,3	74	15,6
2001	3.414	-0,3	1.680	-4,3	1.643	3,1	91	23,0
2002	3.086	-9,6	1.447	-13,9	1.574	-4,2	65	-28,6
2003	3.101	0,5	1.489	2,9	1.544	-1,9	68	4,6
2004	3.700	19,3	1.590	6,8	2.002	29,7	108	58,8
2005	3.706	0,2	1.570	-1,3	2.025	1,1	111	2,8
2006	3.618	-2,4	1.654	5,4	1.862	-8,0	102	-8,1
2007	3.474	-4,0	1.399	-15,4	1.979	6,3	96	-5,9
2008	3.133	-9,8	1.024	-26,8	2.019	2,0	90	-6,3
2009	2.034	-35,1	578	-43,6	1.407	-30,3	49	-45,6
2010	2.602	27,9	675	16,8	1.863	32,4	64	30,6
2011	2.883	10,8	660	-2,2	2.174	16,7	49	-23,4
2012	2.380	-17,4	447	-32,3	1.909	-12,2	24	-51,0
2013	**2.145**	**-9,9**	**351**	**-21,5**	**1.746**	**-8,5**	48	100,0
Aldea 1999-2013	**-1.216**	**-36,2**	**-1.447**	**-80,5**	**247**	**16,5**	**-16**	**-25,0**
Aldea 2005-2013	**-1.561**	**-42,1**	**-1.219**	**-77,6**	**-279**	**-13,8**	**-63**	**-56,8**
Aldea 2006-2013	**-1.473**	**-40,7**	**-1.303**	**-78,8**	**-116**	**-6,2**	**-54**	**-52,9**
Aldea 2007-2013	**-1.329**	**-38,3**	**-1.048**	**-74,9**	**-233**	**-11,8**	**-48**	**-50,0**

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako saila. «Etxebizitza eta eraikuntzari buruzko estatistika. 2013ko laugarren hiruhilekoa»

Birgaitzeko lanetarako baimen-kopuruari dagokionez, Arabari dagokio urtetik urterako jaitsiera handiena, % 14,9. Gipuzkoan eta Bizkaian, berriz, arinagoa izan zen: % 4,3 eta % 5,4-koa, hurrenez hurren.

Etxebizitzetarako baimen gutxiago

Historikoki, baimen ugariko aldiak bat etorri izan dira etxebizitzen eraikuntza ugariarekin, eta alderantziz. Urtearen azken hiruhilekoan zertxobait gora egin bazuten ere, 2012-2013 aldian etxebizitzak egiteko obra larriko baimenak % 8,7 urritu ziren

Beherako ildo berean ibili zen etxebizitzez besteko sektorea ere, horietako baimenak ere % 17 gutxiago izan baitziren. Hala ere, Industria eta Zerbitzuak sektoreek pairatu zuten jaitsiera handiena, % 21,1 eta % 20,6koa, hurrenez hurren.

Haatik, izan zen datu positibo bat: Industria sektorea buruan da emandako baimenen kopuruak 2013ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan izan duen susperraldian, % 52,0 egin baitu gora (lehen sektoreak, berriz, % 38,1 eta zerbitzuenak % 19,7).

Licencias de obra mayor por destino de la obra. Evolución para el conjunto de 2012 y 2013

(Valores absolutos y porcentaje. Variación interanual absoluta y porcentual)

LICENCIAS DE OBRA MAYOR	1º trim 2013 - 4º trim 2013		1º trim 2012 - 4º trim 2012		Variación de acumulado anual sobre mismo periodo del año anterior	
	Número	%	Número	%	Número	Var %
Total	**2.097**	**100,0**	**2.356**	**100,0**	**-259**	**-11,0**
Residencial	1.556	74,2	1.704	72,3	-148	-8,7
No residencial	541	25,8	652	27,7	-111	-17,0
-Agricultura, ganadería, silvicultura y pesca	107	19,8	103	15,8	4	3,9
-Industria y energía	123	22,7	155	23,8	-32	-20,6
-Servicios	311	57,5	394	60,4	-83	-21,1

Fuente: Dpto. Empleo y Políticas Sociales. Estadística de Edificación y Vivienda. 4º trimestre de 2013

Etxebizitza gutxiagotan jardun da

2007tik 2013ra bitartean, bizilekurako etxebizitzen jarduera-kopuruak % 81,2 egin zuen behera, eta jaitsiera horretan etxebizitza berriak egiteko baimenen frakzioak izan du pisu handiena.

Ia berdin eragin zien eraikuntzaren murrizketa bortitz horrek hiru lurraldeei: Araban % 95,1, Gipuzkoan % 83,8 eta Bizkaian % 73,7 Are argiagoa da beheranzko joera kopuru absolutuak hartuz gero aintzat: Bizkaian 6.469 baimenetik 1.703ra jaitsi zen, Gipuzkoan 3.763tik 611ra eta Araban, azkenik, 6.090etik 299ra.

Eragindako etxebizitzen kopuruak oso aldaketa handiak izan ditu hiruhileko batetik bestera, bizileku ugariko sustapenei baimena hiruhileko batean edo bestean emateak eragin handia baitu. Hori aintzat hartuta, 2012ko eta 2013ko azken hiruhilekoen artean % 41,6ko beherakada gertatu zen etxebizitza berrien aurreikuspenetan.

Viviendas previstas por territorio histórico según tipo de licencia de obra mayor por año. 2002-2013.

(Valores absolutos y variación interanual en %)

Año	Araba/Álava				Bizkaia				Gipuzkoa			
	Nueva planta		Rehabilitación		Nueva planta		Rehabilitación		Nueva planta		Rehabilitación	
	Nº	Variación interanual	Nº	Variación interanual	Nº	Variación interanual	Nº	Variación interanual	Nº	Variación interanual	Nº	Variación interanual
2002	2.889		125		5.004		261		3.278		191	
2003	3.996	38,3	195	56,0	6.086	21,6	266	1,9	3.782	15,4	318	66,5
2004	4.164	4,2	231	18,5	6.432	5,7	412	54,9	3.399	-10,1	499	56,9
2005	2.632	-36,8	231	0,0	6.026	-6,3	275	-33,3	4.488	32,0	251	-49,7
2006	4.745	80,3	268	16,0	6.227	3,3	314	14,2	4.994	11,3	392	56,2
2007	6.090	28,3	277	3,4	6.469	3,9	184	-41,4	3.763	-24,6	467	19,1
2008	3.696	-39,3	147	-46,9	3.560	-45,0	390	112,0	2.757	-26,7	270	-42,2
2009	3.625	-1,9	207	40,8	1.564	-56,1	179	-54,1	2.267	-17,8	149	-44,8
2010	2.363	-34,8	143	-30,9	1.883	20,4	217	21,2	2.670	17,8	239	60,4
2011	2.445	3,5	173	21,0	3.274	73,9	349	60,8	2.006	-24,9	202	-15,5
2012	1.107	-54,7	125	-27,7	1.360	-58,5	257	-26,4	1.316	-34,4	212	5,0
2013	299	-73,0	195	56,0	1.703	25,2	236	-8,2	611	-53,6	191	-9,9
Diferencia 2007-2013	**-5.791**	**-95,1**	**-82**	**-29,6**	**-4.766**	**-73,7**	**52**	**28,3**	**-3.152**	**-83,8**	**-276**	**-59,1**
Diferencia 2011-2013	**-2.146**	**-87,8**	**22**	**12,7**	**-1.571**	**-48,0**	**-113**	**-32,4**	**-1.395**	**-69,5**	**-11**	**-5,4**

Lotunea:

http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/prentsa_oharra/eaeko-eraikuntzari-eta-etxebizitzari-buruzko-estatistika-2013ko-4-hiruhileko-gehigarri-estatistikoa/r41-ovse02/eu/